



Arartekoaren Ebazpena, 2011ko uztailaren 21ekoa; haren bidez Debako Udalak izapidetutako hirigintza espediente bati buruzko informazioa lortzeko zailtasunen aurrean zabaldutako kexa-espediente bat amaitu da .

Aurrekariak

1. Pertsona batek Debako Udalaren eskuetan dagoen hirigintza informazioa lortzeko dauden zailtasunak azter ditzagun ekarri zizkigun. Informazioa XXXXXX eremuko hirigintza hitzarmenaren aldaketa espedienteari buruzkoa da.

Hasierako onarpenaren ondoren jendeari informatzeko zabaldutako izapide horretan, erreklamaziogileak 2011ko apirilaren 7an udal bulegoetara jo zuen hirigintza hitzarmena sinatzeko jarraitutako administrazio espedientea lortzeko. Haren erreklamazioan aipatuenez, udal idazkariak adierazi zion agiriak lortzeko idatziz eskatu behar zuela.

Ondoren, apirilaren 13an, udal bulegoetan espedientea kontsultatu zuen eta, une horretan, bertan zeuden zenbait txostenen kopia eskatu zuen. Erreklamazioan kontatu duenez, idatziz eskatu behar izan zuen nahi zituen agirien kopia.

Apirilaren 14an Arartekoarengana jo zuen administrazio horrek udal informazioa lortzeko eskubidea erabiltzeko jarraitutako prozeduragatik eta agirien kopiaren eskaerari erantzunik jaso ez izanagatik kexa aurkezteko.

2. Erreklamazio hori jaso ondoren, Debako Udal horretako udal zerbitzuekin jarri ginen harremanetan erreklamaziogileak egindako eskaerentzat aurreikusitako erantzuna ezagutzeko. Horrela, Debako Udalak hari dagokionez egindako jarduketei buruzko argibideak igorri zizkigun.

Adierazi zigutenez, apirilaren 18an Debako Udalak erreklamaziogileari jakinarazi zion, bere eskaerari erantzunez, eskatutako agirietako batzuk emango zizkiotela (udalbatzaren akta, hirigintza hitzarmenaren agiria eta sustatzailearen idazkia). Idazkari nagusiaren txostenaren arabera, ordea, erreklamaziogilea ez da prozedura horretan interesduna, prozedura ez da ordura arte amaitu eta, beraz,





ezin da gainontzeko txostenen kopia eskuratu (arkitektoaren txostena eta hitzarmenari buruzko txosten juridikoa).

Alegazio idazki batean erreklamaziogileak berriz eskatu zuen nahi zituen agirien kopia eta hitzarmenari buruzko jendaurreko informazioa emateko epea zabaltzeko eskatu zion udalari.

Apirilaren 20an Debako Udalak idazkariaren beste txosten baten berri eman zion. Bertan erabaki zen ezi zirena haren eskubideak urratu, hitzarmenari lotutako espedientea jendaurreko informazioa emateko epean dagoela eta, beraz, berriz kontsulta daitekeela. Hala ere, hitzarmena artean izapidetzen ari zela eta, beraz, espedienteko agiri guztien kopia lortzeko eskubidea eskatzerik ez dagoela berretsi zuen.

Gerora, alegazioak aurkeztu zaizkio hirigintza hitzarmenaren hasierako onarpenari eta hitzarmena onartzeko burututako izapide egintzen erabateko deuseztasuna ebazteko eskatu da. Hitzarmenari buruzko sakoneko beste kontu batzuekin batera, erreklamaziogileak nahi zituen agirietako biren kopia lortzeko zailtasunei buruzko beste forma kontu batzuk aurkeztu ditu.

Informazio hori eta kexaren bultzatzaileak alegatutako beste inguruabar batzuk ikusita eta haien edukiak aztertu ondoren, honako oharbideak egin nahi nizkizuke.

Oharbideak

1. Herritar horrek helarazi digun gaia hirigintza hitzarmena aldatzeko espedientean dauden agiriak eta, batez ere, eskatutako agiri guztien kopia lortzeko zailtasunei dagokie.

Zentzu horretan, igorritako informaziotik ondorioztatzen da, udal bulegoetan sartzea idatziz eskatu ondoren, erreklamaziogileak espedientean zegoen agiri guztietara iritsi dela. Edonola ere, agirietako batzuen kopia baino ez zaio eman, eta besteak salbuetsita geratu dira udal horren ustez erreklamaziogilea ez delako interesduna eta hitzarmena aldatzeko espedientea amaitzeke dagoelako.





2. Kontu horri dagokionez, adierazi behar da, erreklamaziogileak zuzen alegatu duenez, hirigintza espedienteetan pertsona guztiak direla interesdunak, zilegitasun berezirik frogatu behar gabe.

Zoruari eta hirigintzari lotutako gaietan informaziorako eta espedienteak eskuratzeko eskubide hori ordenamendu juridikoak jasotzen duen egintza publikoari zuzenean lotuta dago eta edozein herritar edo elkarteri baimentzen dio jardutea, interes zuzena frogatu behar gabe, hirigintza legeak betetzen direla ziurtatzeko.

Horrek esan nahi du izapidetzearen edozein unetan administrazio espedienteetara iritsi eta haien kopia, 35 a) artikulua, edo amaitutako espedienteak osatzen dituzten agiriena -Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (HAAJAPEL) 37.8 artikulua- eskuratzeko eskubidea dutela.

Hirigintza informaziorako eskubidea bermatzeko bide bi daude eratuta: udal plangintzaren edo beste administrazio egintzen azterketa material eta zuzena, eta idatzizko informazio zuzena. Halaber, informazio eskubide horrek berekin dakar planak eurak osatzen duten agirien kopia eta haiek izapidetu diren hirigintza espedientei buruzko agiriak eskuratu ahal izatea.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak parte hartze eta informazio printzipioa sartu zuen. Horren arabera -8 eta 9. artikulua-, pertsona guztiek daukate interesdun agertzeko eskubidea zilegitasun berezirik frogatu gabe eta eskubidea daukate artxibategietan dauden agiritara iritsi eta haien kopia eskuratzeko.

Bestalde, lurzorua legearen testuategina onartu zuen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak herritarren eskubide ezartzen ditu informaziora iristea eta hartutako administrazio egintzen kopia eskuratzeko.

Erakunde honen iritiz, sarbideko eskubidea, kasu jakin honetan hirigintza espedientea osatzen duten agiri batzuen kopia eskuratzeko, mugatzeak ez dauka lekurik gure ordenamendu juridikoak sarbiderako eskubideari buruz egiten duen arauketan.





- Bestalde, sarbiderako eskubide hori etengabe sustatzen dute administrazioek ofizioz. Horrela, ez da beharrezkoa administratuak erregutzea; aitzitik, udal bulegoetan hura erabiltzen utzi behar da agiriekin edo administrazio jarduketekin espedienteak osatzen duten une beretik.

Agiri horiek kontsultatzea errazteko administrazioek egoteko leku bat aurreikusi beharko dute non, udal zereginetik kanpo eta gutxieneko erosotasunez, interesdunek euren eskubidea erabili ahalko baitute. Hala eta guztiz ere, behar diren neurriak hartu behar dira espediente publikoak zaintzeko betebeharra bermatzeko eta eragin liezaiekeen hirugarrenen balizko eskubideak babesten dira.

Bestalde, administrazioek bitarteko elektronikoak izan behar dituzte espediente elektronikora iritsi ahal izateko, herritarrak zerbitzu publikoetara elektronikoki iristeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 6. artikulua arabera. Formatu horren erabilerari esker, erosotasunez, berehala eta doan irits daiteke espediente digital horiek osatzen dituzten agirietara.

- Edonola ere, adierazi behar da izapidetzean forma akatsak egoteak ondorioak izango dituela administrazio ebazpenaren aurrean, haiek babesgabatasuna sortu badute eta plana izapidetu bitartean edo ondoren konpondu ez balira, 30/1992 Legean xedatutakoaren arabera.

Gauzak horrela, kasu honetan erreklamaziogileak agiri guztien edukia ezagutu du jendaurreko informazioa bitartean eta alegazioak aurkeztu aurretik.

Kexan eta udal horrek igorritako argibideetan dauden datuak eta egindako oharbideak ikusita, honako ondorioak helarazi behar dizkizugu:

Ondorioak

Ararteko erakundetik berriz azpimarratu behar dugu informazio publikora iristeko eskubidearen garrantzia, batez ere jendaurreko informazioaren izapideak iraun bitartean, hura zuzen erabiltzeko funtsezkoa da pertsona interesdunek espediente osoa eskura izatea kontsultarako eta haren kopiak lortzeko.





Informaziora iristeko eskubide hori daukan zereginerako balio izateko beste kalitatez erabili behar da. Horrela, informazioaren prozedurari eta hura eskuratzeko legedian aurreikusitako arazoien arabera baino ezin da mugatu.

Espedientera lehen unetik iritsi ahal izateko eta espediente osoaren kopia eskuratzeko zailtasunek kalitate galera dakarte sarbiderako eskubidean eta jendaurreko informazioaren izapidean.

Administrazio agirietarako sarbideko kalitate galera horrek administrazioaren erantzuna ekarri behar luke, zentzu bitan. Alde batetik, interesdunek kalitatezko informazioa eskuratzeko alegatu dituzten zailtasunak konponduz. Bestetik, herritarren partaidetzarekin duen lotura zuzenean, jendaurreko informazioaren izapidean aurreikusitako epea, gutxienez, agirietara iristeko eskubidearen erabilera zuzenari kendutako egunetan luzatuz.

